

## EUSKARAREN MENPEKOTASUNA?

Lexikoa hizkuntzaren funtsezko atala dugu. Hitz-zintzelez lantzen dugu hizkuntzaren harria eta, era berean, hitz-harriz erai-  
kia da hizkuntzaren etxea. Auzi honetan lehen lehenik nabari  
dena, hurbildu orduko somatzen dena, alderik atxekigarriena  
lexikoarena dela dirudi; baita jende xehea bizikien ukitzen edo  
kezkatzen duena ere, agian. Azken urteotan, euskarari dagokio-  
nez behintzat, eztabaidarik latzenak bi arlotan izan direla esango  
nuke: ortografian eta lexikoan. Biak hain agerikoak izanik, bestal-  
de, ez da harritzekoa herri-herriko jendeak ere auzi horretan bere  
burua sartzea.

### Azkueri jarraituz

Lanxo honetan, R.M. Azkue-k 1922.eko Irailaren 13an eginda-  
ko hitzaldi gogoangarri baten iruzkina eta neure aldetiko zenbait  
gogoeta eskaini nahi nizkioke irakurleari. Hitzaldi hau Eusko  
Ikaskuntzaren III. Biltzarrean egin zuen Azkuek. «*De Semántica  
Vasca*» du izenburu, baina hitzaldia euskaraz egin zuen.

Euskal gramatikari aberatsa, jantzia, apaina deritzo Azkuek.  
Hiztegiari dagokionez, ordea, gurea baino oparoago hornituak  
hainbat direla diosku, batez ere asmo berriko izaki-izenetan. Hala  
ere gure hiztegia, noizbait aberatsa, oparoa izana, ere asko galdu-  
rik heldu zaigula aitortzen du.

Bere baieztapen horren euskarritzat *Refranes y Sentencias* liburu zaharra eta bertan datozen zenbait hitz aipatzen ditu; esaterako, *geide* = lagunurkoa, *urgazi* = lagundu, *gebendu* = debekatu... Euskararen galera hauen zergatiak arakatzera jotzen du ondoren:

- Izaki asko hil egin dira, aienatu. Eta hiltzerakoan lurpera eraman dituzte euren izenak. Oraintsu hilak izanez gero, ezagutu dituztenen oroimenean bizi dira soilik. Liburuetan bilduak izan diren haietariko batzuk zori hobea izan dezakete berreskuratuak eta indarberrituak izan daitezke eta. Adibide politak eta esanguratsuak dakarzkigu Azkuek: orain dela ehun urte bizi ziren euskaldunek, herribide nahiz basabideetan zehar gau ilunean ibiltzeko, *zuziak* behar-beharrezkoak zituzten. Argi berriak agertuz, haiek betiko itzungi ziren askorentzat. Sutautsa edo bolbora sortu orduko, gizonak *geztz* eta *azkonaz* gudukatzen zuten. Gure artean inor ote den -galdetzen du Azkuek- *geztia* eta *azkona* hitzak amaren ahotik entzun dituenik. *Abaila* bizirik dela -diosku- mutikotan gizonkeriatxoak egiteko erabiltzen zutelako. Erripideak egin ondoren, oinez bide luze nekagarriak egin eta biderako janari-edariak zorrotxo baten bildu eta sorbaldatik zintzilik eramateko ohitura galdu zen. Horrek lurpera eraman digu hitz eder bat: *bidaria*. Horren ordeaz, erdaldunek zuten *viático* hitza entzuten da, baina erlijio-esannahiz: biderako janari izpirituala, hots, gaisoei elizakoak emateko etxera eramaten zaien Eukaristia.

- Izaki asko, aienatu ez arren, taiuz, tankeraz aldatu egin dira eta taiu berri hori erbestekoa izanez gero, lehenengo izen jatorra galduz erbestekoa sortu eta sartu da gure artean. Taiuz aldatzearen lehen adibidetzat kebidearena jartzen du: aintzinako etxeetan sukaldearen erdi-erdian omen zen kebidia; hau da, goiburuan etxeakoak ez bustitzeko eran egindako hutsunetik ematen zitzaion keari airerako bidea. Kebide zahar hari *suburua* zeritzon. Geroago erbestetik etorria omen da beheko sua sukaldeko txoko batetan hormari datxekiola jarri eta, keak gorantz egin zezan, teilatuegala baino gorago bide estu bat jartzeko usadioa. Aldakuntza horrek eragina da *suburu*, jatorrizko izena, erbesteko *tximinia*

izenaz trukatzea. *Aulkia* gizabanakoa esertzeko edozein altzariri deritzogu gaur egun. Aintzina ez omen zen horrela: *aulkia* gizabanakoa esertzeko erdiko heduleku eta guztiko zurezko altzaria zen; atzerik gabekoa, noski. Geroago zumitzezkoak eta beste era batzuetakoak agertzerakoan, *silla* izen arrotza erabili izan zen euskaldunen ahotan. Hala ere aulkiak beste izen askok baino zori hobea izan du, *silla*, hitzetik hortzera barra-barra erabilia izan arren, euskara idatzian ez baita onartua izan.

*Lebio* eta *bentanaren* kasua guztiz ezaguna da. Lebio hitza ongi ezagutu arren, bizkaitarrok ezin dugu mihi puntatik kendu zorioneko *bentana* hori. Azkuek pasadizu polita dakar hitz bikote honetaz:

«Neure ardurapeko baserritartxo bati bein *txotxo*, esan neutsan, *leioa ta bentanea bat ete dituk?* -*Leioa leio da ta mentanea mentana* erantzun eustan». Kristalik ezagutzen ez zenean, leihoak mehar-meharrak izaten omen ziren hotzaren beldurrez. Kristal ederrez hornituriko leiho zabalak egiterakoan sartu zitzaigun bizkaiera egiten dugunoi *bentana* delako izen arrotza. Gaur egun nonnahi esaten den *balkoi* hitzaren lekuan Txorierriko zaharren batzuri *pendiza* entzun izan ziela diosku Azkuek, baina haien *pendizak* eta gure *balkoiak* ez zirela taiu berekoak. Bilbo ondoko tokiren batetan, *bankuaren* ordez *lankea* esaten omen zen. Lehengo mutikoaren xelebrekeriara itzuliz, zera dio: «ete dago inor aretan, nire ardurapeko Amoroartxoak legez, *lankea lankea da ta mankua manku* esango leukeanik?». Hamaikatxo hitzekin gertatu izan da horrelakoriki Taiuz aldatu eta izena galdu; batzutan lorratzik ere utzi gabe eta beste batzutan izena azpitik nolabait agertzen dela. Zeharo ezabatu gabeko hitzen adibide gisa bikote hauek aipatzen dizkigu lekeitiar jakintsuak: gurdia (orga) / karroa; elikatu / mantenitu; ziztorra / txorizoa...

Hitz arrotzak hizkera batetan sartzen hasitakoan lehengo zahar-  
rrak makurragotzat, zakarragotzat jotzen ditugu zentzu aldetik.  
Hala nola, nekazariak diru truke egun banakak igarotzeko egoitzak

*ostatuak* ziren; aberatsenak, berriz, *botelak*. «Mauruak gure artean euren *alkandor* saltzen asi zireanean, gizonen *atorrak alkandora* edo *alkondara* artu eben izentzat»

• Hitzen galeraren beste arrazoi bat hitz sinonimoen elkarrekin ezin bizia da. Izaki batzuk bi izen nahiz gehiago dituzte eta garai batetan guztiak bakez eta sendo bizi izan arren, epe baten buruan elkarri enbarazu egiten hasten dira; batek aurrea edo goia hartzen die gainerakoei, hauek hil nahiz urrundu arte. *Geide / lagunurkoa, urgazi / lagundu, gebendu / debekatu* honelako bikoteak ziren. *Lagunurkoa, lagundu* eta *debekatu* nagusi izatera heldu orduko- xe galdu ziren besteak.

Latinezko *mos* edo gaztelaniazko *costumbre* adierazteko euskaldun askok darabiltzaten *obitura* edo *obikuntza* hitzak ez ditu Azkuek hain egokitzen (ez du arrazoirik jartzen). Hori adierazteko Bizkaiko euskalkiak bi hitz egoki zituela dio: *ekandu* eta *izkune*. Elkar jotzen hasterakoan, bata ez bestea ez ziren hil, baina urrundurik bizi dira: *ekandu*, tokirik gehienetan; eta *izkune*, Bermeo eta Ipazter aldean.

Honela urrundurik bizi direla, dio, *jardun* (ihardun) Markinan, Lekeition, Gernikan eta beste toki batzutan; *eragon* Arratian; *erautsi* Leintz aldean eta hauek baino sendoagoa delako edo, *ekin* nonnahi. Beraz, gauza bera eta esannahi berberekoak dira, Azkue- ren eritziz, *zertan diardut, zertan darautsat, zertan daragoiot* eta *zeri nakio*. Beste euskalkietan *ari izan* esaten dutela, dio, lau aditz eder hauen orde. *Zuzi* eta *lastargi* zentzukideak aipatzen dizkigu gero; hauek ere elkarren ondoan ezin bizi eta lekua zeinek zeini jango aritu omen dira.

Zentzukidetzat ditugun hainbat hitz hala ez izatea ere maiz gertatzen dela diosku. Esaterako, *galde* eta *itain* ez omen dira esannahi berberekoak. *Galde* erdaldunen *pesquisa* (recherche) dela dio. *Igorri* eta *bidali* hitzen artean ere bereizketarik badela adierazten digu: *igorri* gauzak toki batetik bestera helerazi han hartzaileak eskura dezan; *bidali*, berri, pertsonak toki batetik

bestera bidean jarri, behar dutena emanez; haren hitzez esateko «*igorry* enviar objetos da, *bidali* despachar personas, darles lo necesario para el camino». *Denak / guztiak* bikoteaz ere badihar- du, hura honen zentzukidetzat desegoki erabiltzen dela adieraziz. Genesis liburuko hitzak, hots, «Qui est missit me ad vos» itzultzeko ezin hobeki datorrela, diosku, lehenengoa: «Danak (el que es) zuekana bidali nau»; baina gaztelaniazko *todos* esateko onartez- nekotzat du. Horren ordezt, gure zaharrek honelako esamolde egokiak zekizkiten esaten: «gareanok emen gara» (todos estamos), «doreanak jausi dira» (todos han caído). Idazle zaharretara joz, Mendiburu eta Kardaberaz-ek, besteak beste, horrelaxe darabilte.

- Zenbait hitz galdu arren, haien eratorriak bizi dira. Hau da, ondorengoak utzirik hil dira. *Autz* hitza aipatzen digu Azkuek, latinezko *faux*-en jatorrikoa, gaztelaniaz *las fauces* eman duena. Gaur egun hitz hori zeharo galdua da, baina *auzkaka ibardun*, *auzkan egin* = burrukan egin, bizirik dago. *Konkor* hitza, bere lehen adieran, erdi galdutzat ematen du. *Lepotxa*, *lepamakur* hitzek hil dutela dio. Baina *konkorturik gelditu* = harriturik, txun- diturik gelditu, harri eta zur gelditu esannahiaz bizi-bizirik dugu. Gaztelaniazko *echar* esateko *egotzi* geroago eta bakanago entzu- ten dela diosku. Bizkaian eta Gipuzkoan honen ordezt *bota* dara- bilgula ia beti. Hegoaldeko euskaldunok *gaur*, *gaur egunean* eta abar darabiltzagu Iparraldekoen *egun*, *egungo egunean* esan ordezt. Hegoaldean ere, Iparraldean bezala, adiera bikoitzez erabi- li izan zen noizbait hitz hori. Hala irakur genezake *Refranes y Sentencias* liburuan. Galdu zen hitz hori, baina hor ditugu *egundo*, *eguno* eratorriak.

- Hitzen galeraren beste erruetariko bat alferkeriari egotzen dio Azkuek. Hitzunak errazenera jotzen du berez-berez, zehaztasuna- ren kaltetan. Antz-antzeko kontzeptuak baina berdin-berdinak ez direnak adierazteko, izenak ere ezberdinak komeni izango lirate- ke. Horrela gaztelaniaz *limpiar* hitzak tokia jaten die askotan *barrer*, *lavar* eta *purificar* hitzei. Gaztelerazt *limpiar las manos* esan ohi dute, *lavar las manos* esan ordezt; *limpiar la conciencia*,

*purificar la conciencia* esan ordez; *limpiar la habitación, barrer la habitación* esan ordez. Euskaraz ere beste horrenbeste gertatzen zaigu, Bidasoaz honantz batez ere. Kontzeptu horien ñabardura guztiak alferrik galtzen ditugu: hemendiko aldean guztitarako darabilgu *garbitu*. Iparraldean *eskuak ikuzi* esan ohi da; *barrena xabutu*; Zuberoan erratzez hautsa eta zaborra kentzeari *ekortu* deitzen diote. Badira hemen han baino hobeki gorde izan diren ñabardurak: *aditu* hitzak *atender, prestar atención* esan nahi du Iparraldean nahiz Hegoaldean; *comprender* adierazteko, *aditu* bera darabilte haiek; *guk, ordea, ulertu*. Zenbait tokitan *mostrar* (hacer ver) eta *enseñar* (hacer aprender), bietarako *erakutsi*; azkeneko hau, berriz, *irakatsi* da euskara jatorrez.

Gizakiaren izaera adierazten duten tasun onak, horrelaxe esaten omen ditugu inolako zehaztasun eta ñabardurarik gabe: gizon *ona*, emakume *ona*... Gehienez ere *jatorra, zintzoa, majoa*... Horrelakoetan erabil daitezkeen hitz batzu dakartza adibidetzat: gizon nahiz emakume hori *mena* da (dócil), *esangina* (esanekoa), *elizkoia* (devoto), *kirmena* (fiel), *zintzoa* (fino), *otzana* (modesto). Pertsonaren keriak edo alde txarrak hobeki zehazten ditugula uste du Azkuek. Hona dakartzan adibideak: gizon hori *ordia* da, *lapurra* da, *bere modukoa* da, *hortik hemendikoa, zakarra, itxia, harroa, jatuna, saskela, kokoloa, txotxoloa*... «Otzandiora bazoa-ze etxean-etxean entzungo dozue *bergante bat da*, Bermeon *alproja bat dxatzu* ori eta nonnai *tunante, basto*... ta abar».

### **Zenbait hitzen esannahi hertsia**

Azkue jaunaren hitzaldiaren iruzkinean ere hori nabari da, baina euskarak ahoz ahozko hedapena izan duenez gero, hitz askok esannahi mugatu-mugatua dute. Gauza hura eta halakoa adierazteko balio dute soilik; Azkuek dioenez, taiuz edo tankeraz aldatuz gero, beste gauza bat dela eta izen berria behar duela dirudi; eta honelakoetan, zoritxarrez, erdal izena itsasten zaie...

Ikastolak, U.E.U., U.Z.E.I. eta abar ez daude alferrik eta asko egin da arlo horretan. Jar ditzagun hiruzpalau adibide: *Ubin* hitza,

berez, *urgaineko tontor gisako ur multzo bigikorra* da, baina hori ote da soilik? Zenbait gauzaren gainazalean nabari ohi diren gorabebera edo kurbetariko bakoitza eta fisikan *bigidura dardarakorraren jite berezia*. Geruza hitzak ere hedadura berezia izan ohi du egungo zientzi gaietan: *mendez mende horizontalki tolesturiko lurretan berdinki hedatua dagoen mineraleen estratu edo maila mehe bakoitza*; *bedaduraz*, beste edozein gorputzen elkarren gaineko estratu edo tolesturei ere deitzen zaie (*Euskararako Hizt*). *Garatu* hitzak, berez eta lehen adieran, landare batzuk loreak nahiz kimu berriak ematea adierazten du; baina *hedaduraz*, *bazi edo eta izaki batek bere bazkundean eman dezakeena* eman ere adierazten du. Adiera hau ez da azken ordukoa, jadanik Olabidek badakar eta. *Txerto*, *txertatu*, *sestra*, *orpo*, *belarri* hitzek ere, berezko adieraz gain bigarren eta hirugarren adierak hartzen dituzte. Honetan gehiegi luzatzea nekagarri litzateke irakurlearentzat.

### **Hitz emankorrak**

Beste hitz batzu emankorrak dira, askotarakoak, baina jakina, ez zehatzak: *egin*, *eman*, *jarri*, *jo*, *izan*, *eduki*, *ukan*, *buru*, *esku*, *aldi*, *alde*, *barri*, *herri*, *erro*, *sustrai*, *oinarri*...

### **Zentzu bikoitzeko hitzak**

Egoera fisikoa nahiz psikikoa adieraz ditzateke zenbait hitzek: *sorato*, *Sor*, *motel*, *lor*, *ukurtu*, *abaildu*, *sumindu*, *apaldu*...

*Samurtu* hitzak ere bi adiera ditu: *bigundu* eta *baserratu*. *Soltura* hitzak ere bai: *soltura* (higiduraren erraztasuna, magultasuna) eta *baimena* (solthüra).

### **Neurri zaharrak**

Nekazari giroko neurri zaharrei buruz, beste hizkuntzetan bezala, zehaztasunik eza da lehen-lehenik nabari dena. Hor ditugu zenbait izen erdi ahazturik, erdi zokoraturik: *anega*, *erralde*, *azumbre*, *arroa*, *laka*, *imina*, *imina laurden*, *gizalan*, *uztaldi*...



Txanponetan ere ugari dira, baita luzera neurrietan ere. Ontzi izenetan badira gaur egunean erabil daitezkeenak: *txolet, antxostin, godalet...* Handiagoak: *txanbil, suil, tinaku, upela...*

### **Nola jokatu hiztegitan**

Azken urteotan ni neu ere horretan ari naizenez gero, eskarmentuak irakatsirik, bizpahiru xehetasun azpimarkatuko ditut:

- Maileguak ezinbestean eta geure hizkuntzaren ondarean ordezkorik ez dugunean onartu beharra dago. Euskal hitza dugunean ere, noizbait komenigarri izan daiteke mailegua sartzea, baina beti ere hura hobetsiz; hau da: irakurleari euskal hitza ikasteko bidea erraz diezaion. Zeintzuk, nola idatzirik eta abar, zorrozki eta tentuz egin beharreko hautaketa da.

- Hitzak horretarako bide emango balu, bereizketak egiten saiatu, kontzeptu ezberdinak izen ezberdinez eta zehazki adieraztea lortuz.

- Baliagarri liratekeen hitz zaharkituak berreskuratu eta erabili.

- Aldakien artean hedatuena, kontzeptua egokien adieraz dezana hautatu. Hain hedatua ez den aldakia ere, euskalkiren batetan bizi-bizi balego, sar daiteke, baina beti ere bestea, euskal hiztunik gehienen ondare dena hobetsiz.

- Euskalkietan nahiz euskalkietako toki mugatuan bizi diren zenbait hitz egoki euskaldun guztion mahaira atera. Hor ditugu, esaterako, Mungia aldean zentzu mesprezagarria duten *zorritzto, sapazto, babazto, keto, gosekil...* inguru bereko *gesu batetan*; Nafarroako *arpana* = trontza; Munitibar inguruko *engara* = eragozpena (ez dut engararik); Nafarroa eta Iparraldeko *estekatu, estekadura* = lotu, lokarri; Iparraldeko *troxa, troxatu, troxaketa*: haur txikia biltzeko oihala, troxaz bildu, biltzea; *ñapur*: ganadu (ardi) hezgaizta, behar ez den larrera nahiz inorenera sartzen dena; *gerren* = burduntzi; *gesaldu* = deskongelatu; *zabar okitua*: guztiz zaharra, *zubur okitua*: guztiz zekena, diruzalea; *zarika* = upela; *beila* = erromesaldi, *beilari* = erromes, *beilabidea*: erromesen



bidea; *xabaku* = zahato; Markinaldeko *Marixe bekaineko etorri*: loak hartu, *Martin itsua etorri*: loak hartu eta abar.

Eta besterik gabe hemen bukatzen dut, irakurle, Azkue jaunarenetik eta neuretik eskainitako jaki hau egoskaitz gerta ez dakizun.

*Luis Baraiazarra*



**ESTUDIO  
FOTOGRAFICO**

**ARGALKARI**

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak  
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak  
Fotokopiak (Txikitzeak)*

\*\*\*\*\*



**XARZEL S.L.**  
VIDEO PROFESIONAL

---

San Miguel kalean, 14 Urrut: 673 0509 <b>48340 Amorebieta</b>	Trañabarren, 13 Bloque 1-4 Urrut: 681 1009 <b>48220 Matiena (Abadiano)</b>
---	--

JUAN MANUEL SASUATEGIAVISA: 444 3500 - Abonado 868